Edinburgheko gaztelua

Edinburgheko gaztelua (ingelesez *Edinburgh Castle*) antzinako gotorleku bat da, eta bere egiturarekin Edinburgheko ortzi muga bereganatzen du, **Castle Rock** (*Gazteluaren Harkaitza*) izeneko harritzarrean kokatua. Eskoziako bigarren erakargune turistikoa da.[1] *A mailako eraikin* izendaturik dago.

Eduki-taula

- **Historia**
  - Gazteluaren hastapenak
  - Eskoziako independentzia gerrak
  - Setio luzea
  - Aro modernoa
  - XX mendea
- **Deskribapena**
- **Erabilera**
- **Iruditegia**
- **Erreferentziak**
- **Kanpo estekak**

Historia

Indusketa arkeologikoek erakutsi dute antzinatik populatua izan dela Castle Rock, gutxienez Brontze edo Burdin Arotik hona.

Gazteluaren hastapenak

K.o. 600 urteko Y Gododdin poema galestarrean *Din Eidyn* (Eidynen gotorlekua) aipatzen da baina gazteluaren benetako aipamena 1093koa da. Edinburgheko gaztelua Eskoziako garrantzitsuena bihurtu zen berehala eta David I.a Eskoziakoa (1124-1153) bertan bizi izan zen. Honek noble eta elizgizonen bilera egin zuen, Eskoziako parlamentuaren aurrekari kontsideratzen dena. Egurrezko gaztelua zen orduan, harrizko bi eraikin bazeuden arren, St Margaret kapera eta Andre Mariaren eliza.

1174ko Alnwickeko borrokan ingelesek Gilen I.a harrapatu zuten eta honek bere askatasunaren truke Edinburgheko gaztelua eman behar izan zien ingelesei. 1186an itzuli zioten gaztelua, Ermengarde de Beaumont printzesa ingelesarekin ezkondu zenean, eta berriz Eskoziako boterea bertan ezarri zen.

Eskoziako independentzia gerrak

Eskoziako lehenengo independentzia gerran ingelesek gaztelua setiatu zuten eta hiru egunetako bonbaketaren ondoren eskoziarrek errenditu beharra izan zuten. 1300 urtean 325 soldadu ezarri zituzten bertan. 1307tik aurrera ingelesen boterea ahultzen hasi zen eta 1314ko martxoaren 14ko gauean Thomas Randolphek

Edinburgheko gaztelua

Irudi gehiago

Kokapena

Estatua	Erresuma Batua
Herrialdea	Eskozia
Scottish council area	City of Edinburgh
Koordenatuak	55° 56′ 55″ N, 3° 12′ 03″ W (https://tools.wmflabs.org/geohack/geohack.php?pagename=Edinburgheko_gaztelua&language=eu&params=55.9487_N_-3.20073_E_region:_type:_scale:_dim:_globe:)

Historia eta erabilera

Jabea	Eskoziako Gobernua
Kudeatzailea	Historic Scotland
Ondarea	SM90130

Webgune ofiziala (http://www.edinburghcastle.gov.uk/)

eraso azkar bat egin eta gaztelua eskoziarrentzat berreskuratu zuen. 1335ean ingelesek hartu zuten berriz gaztelua 1341ean William Dpuglasek berriz askatu zuen arte. 1357an Independentzia gerren amaiera etorri zen Berwickeko itunarekin.

XV mendean ere ingelesek setioak izan zituen. Garai hartan hainbat eraikin berri altxatu ziren Daviden dorrea, Koroaren enparantza, Errege familiaren apartamentuak eta Areto nagusia besteak beste. Armategi handi bat ere eraiki zen. Edinburgh hiria inguratu zuen harresi sendoa ere orduan eraiki zen. XVI mendean Errege familiak gero eta gehiago erabili zuen milia bateko distantziara zegoen Holyrood jauregia.

Setio luzea

XVI mendearen bukaeran gerra zibila piztu zen Maria I.aren aldekoen eta haren seme Jakue VI.aren aldekoen artean. Maria I.aren aldekoak gazteluan zeuden Sir William Kirkcaldy of Grange-ren agindutara eta 1573ko urtarrilaren 1ean hiria bonbakatzeari ekin zioten Jakue I.aren aldekoek gaztelua setiatu zutenean. Hauek apirilean Sir William Drury-ren agindutara etorritako 1000 soldadu ingelesen laguntza jaso zuten. Castle Hill muinoan 27 kainoi ezarri zituzten eta maiatzaren 17an gaztelua bonbakatzeari ekin zioten. Maiatzaren 26an, akituta, Grangek gaztelua errenditu zuen eta 28an ingelesak sartu ziren barruan. 1603an Jakue VI.a Ingalaterrako errege bihurtu zen, Jakue I.a izenarekin.

Gazteluak kalte nabarmenak jasan zituen eta berreraiki beharra izan zuten. William MacDowall izan zen berreraikitze lanen arduraduna.

Aro modernoa

Jakue II.a Ingalaterrakoari Gilen III.a Orangekoak zuzenduriko noble talde batek 1688an Iraultza Loriatsua egin ondoren eskoziarrei errege berria onartzeko agindu zieten eta hauek ezezkoa ematean ingelesek Eskozia erasotu zuten. 7.000 soldaduk Edinburgheko gaztelua setiatu zuten. Barruan zeuden 160 soldaduk gogor eutsi zioten baina hiru hilabeteren ondoren 70 gizon galdu zituela ikusita Gordongo dukeak gaztelua errenditu zuen.

Borroka guzti hauen ondoren 1707an Eskoziak eta Ingalaterrak Batasunaren Ituna sinatu zuten. Highlandetako Jakobiten matxinadak izan ziren baina ez zuten arrakastarik izan.

Mendearen erdialdetik aurrera kartzela funtzioak hartu zituen gazteluak. Zazpi Urteko Gerra (1756–1763), Ameriketako Estatu Batuen Independentzia Gerra (1775–1783) eta Napoleondar Gerretan (1803–1815) izandako presoak gorde zituzten bertan. 1811ean ihesaldi handi bat gertatu zen eta 1814an kartzela izateari utzi zion.

XX mendea

Puntualki, Lehen eta Bigarren Mundu Gerratan ere gerra presoak izan ziren bertan. 1993an Antzinako Monumentu berezia izendatua izan zen eta 1995ean UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zuen gainontzeko Edinburgheko alde zaharrarekin batera.

Deskribapena

Gaztelua labar garaiez inguraturik dago eta beratra sartzeko bide bakarra Royal Mile kale nagusia da. Aintzina laku batek ere inguratzen zuen (*Nor'Loch*) baina lehortu egin zuten.

- Portcullis Atea da gaztelurako sarrera eta ondoan du Argyle dorrea, erabat funtzio militarra duena.
- Goiko patioa: XVII mendeko Foog's Atetik sartzen da eta zitadela dago bertan.
- St Margaret kapera: Gazteluko eraikin zaharrena da, XII mendekoa.
- Crown Square (Koroaren enparantza): Erregearen jauregia, Areto Handia, Ana Erreginaren Eraikina eta Gerrako Memorial Nazionala daude bertan. Erregearen jauredia Estuardo monarken egoitza izan zen XV eta XVII mendeen artean.

Erabilera

1923an funtzio militarra galdu zuen eta gaur egun Eskoziako monumentu turistiko garrantzitsuena bihurtu da. Urtero milioi eta erdi bisitari izaten ditu.

Iruditegia

Sarrera.

Gazteluaren ikuspegi orokorra.

Eskoziar Gerra Oroimenaren museoa.

Tattoo edo martxa militarra gazteluaren aurrean.

Edinburgheko gaztelua, Princes Street Gardens lorategia eta Ross iturria.

Erreferentziak

1. ↑ "The refurbished Kelvingrove Art Gallery and Museum has knocked Edinburgh Castle off the top spot as Scotland's busiest tourist attraction." (http://news.bbc.co.uk/2/hi/uk_news/scotland/glasgow_and_west/6615775.stm), BBC News Scotland, accessed 3 May 2007

Kanpo estekak

- Edinburgheko Gazteluaren webgune ofiziala (http://www.edinburghcastle.gov.uk)
- Edinburgheko Gazteluaren webgune ez-ofiziala (http://www.edinburghcastle.biz)
- Undiscovered Scotland webgunearen Edinburgheko Gazteluari buruzko orria (http://www.undiscoveredscotland.co.uk/edinburgh/edinburghcastle/)
- Edinburgheko Gazteluaren MOD webgunea (http://www2.army.mod.uk/52bde/edinburgh_castle.htm)
- Edinburgheko Gazteluaren dokumental historikoa (http://www.scotlandontv.tv/scotland_on_tv/video.html?vxSiteId=60fdd544-9c52-4e17-be7e-57a2a2d76992&vxChannel=History%20Places&vxClipId=1380_SMG172&vxBitrate=300)
- Edinburgheko Gazteluan dagoen Mons Meg kanoiari buruzko artikulua ARGIA astekarian (http://www.argia.com/argia-astekaria/2240/erdi-aroko-heriotzaren-izarra/osoa)

Autoritate kontrola	**Wikimedia proiektuak** · Datuak: Q212065 · Multimedia: Edinburgh Castle (https://commons.wikimedia.org/wiki/Category:Edinburgh_Castle) **Identifikadoreak** · WorldCat (https://www.worldcat.org/identities/containsVIAFID/316746075) · VIAF: 316746075 (https://viaf.org/viaf/316746075) · **Hiztegiak eta entziklopediak** · Britannica: url (https://www.britannica.com/place/Edinburgh-Castle)

"https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Edinburgheko_gaztelua&oldid=7240535"(e)tik eskuratuta

To ɔar

Nabigazioa

- Azala
-
- Txokoa
- Albisteak
- Aldaketa berriak
- Ausazko orria
- Laguntza
- Dohaintza egin

Tresnak

- Honanzko lotura duten orriak
- Lotutako orrietako aldaketak
- Fitxategia igo
- Orri bereziak
- Lotura iraunkorra
- Orri honen datuak
- Artikulu hau aipatu Wikidata itema

Inprimatu/esportatu

- Liburu bat sortu
- PDF gisa jaitsi
- Inprimatzeko bertsioa

Beste proiektuetan

Wikimedia Commons

Beste hizkuntzak

- Afrikaans
- العربية
- Azərbaycanca
- Български
- Brezhoneg
- Català
- Cebuano
- Čeština
- Cymraeg
- Dansk
- Deutsch
- English

- Español
- Eesti
- فارسی
- Suomi
- Français
- Gaeilge
- Gàidhlig
- Galego
- עברית
- हिन्दी
- Hrvatski
- Magyar
- Հայերեն
- Bahasa Indonesia
- Íslenska
- Italiano
- 日本語
- Қазақша
- 한국어
- Nederlands
- Norsk bokmål
- Polski
- Português
- Română
- Русский
- Scots
- Srpskohrvatski / српскохрватски
- Simple English
- Slovenščina
- Српски / srpski
- Svenska
- Kiswahili
- Türkçe
- Українська
- اردو
- Tiếng Việt
- 中文

Aldatu loturak

WIKIPEDIA Entziklopedia askea

Orriaren azken aldaketa: 30 azaroa 2019, 13:34.

Testua Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziari jarraituz erabil daiteke; baliteke beste klausularen batzuk ere aplikatu behar izatea. Xehetasunen berri izateko, ikus erabilera-baldintzak.